

## BALIO PROPOSAMENA

Guk etxe bateko sistema berri nahi dugu, hau da, “revolution” sistema ezarri etxeetan familiei laguntzeko. “revolution” etxeetan jarriko dugun sistema bat da, hobeto esanda pareten artean joango den aparatua bat. Hobeto ulertzeko, telebista pistu nahi baduzu zuk “revolution” deitu eta gailua pistu egingo du, sistemaren bitartez. Hainbat gauza egiteko gai da, telebista pizteko gai, argia pizteko gai, persiana jeitxi eta igotzeko gai, aire kondizionatua pizteko gai, ura ere kontrolatzeko gai eta haren tenperatura kontrolatzeko gai.

Sistema honek, beste etxeetatik bereizteko aukera ematen digu, sistema berria delako eta errestasuna ematen digulako erabiltzerako garaian. Horrela, gauzak edo ekintzak ahalik eta azkarren egiteko aukera izango dugu denon artean eta hainbat gauza batera egiteko abantaila izan daiteke denontzat. Sistema 24 orduz eskuragarri egongo da etxean, hobeto esanda egunero ordu guztietan eta hori oso baliagarria da familientzat, edozein momentuan zerbait behar baduzu sistemari deitu eta dana oso denbora gutxian eginda egongo delako.

Horregatik, sistema hau arrakastatua dela iruditzen zaigu, sistema inteligente bat delako eta abantaila handia dela kontsideratzen dugulako denon ingurura ekarri izana. Gainera, sistema hauek behar direla uste dugu, izan ere, ez daude oso aurreratuta gizarrean. Dana oso antolatuta dago, alde batetik produktuaren aurkezpenak oso osatuta daude sistema bere osotasunean ulertzeko. Bestetik, produktuaren analisia beteta dago eta akatsik egin gabe. Gehitzeko, gailu elektronikoen bitartez bezeroengana iristeko bidea ere argi ikusten da eta oso prezio onean dagoela esan dezakegu. Izan daiteke, familiaren batek diru arazoak izatea eta horregatik diru laguntzak ere eskaintzea erabaki dugu, horrek besteengandik bereiztasuna emango digu.

Diseinuaren inguruan hitz eginez, etxean dana oso ondo instalatuta dagoela azpimarratzen dugu, hormen barrualdean egongo da sistema ezkatuta eta modu hartan ingurua txukun geratuko da. “revolution”nek ez du inolako arriskurik, beraz gurasoak arduratuta egon beharrean, umeei etxean zehar lasai ibiltzeko askatasuna eduki dezakete.